



**MEMORIA EKONOMIKOA**

**EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN  
LEGEA BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO  
LEGE-AURREPROIEKTUA**

*Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen  
Zuzendaritza*

*Segurtasun Saila*

*Bilbao, 2013ko azaroaren 22a*

## AURKIBIDEA

Orr.

1.- Aurrekariak eta lege-xedapenaren beharra ikuspegi ekonomikotik aztertuta .....	2
2.- Lege-xedapena indarrean sartzeak aurrekontuan eragingo dituen gastuak eta diru-sarrerak .....	2
A) <i>Eduki ekonomikoa duten artikulua.</i> ....	2
B) <i>Aurreproiektuaren eragin ekonomikoaren azterketa.</i> .....	6
3.- Aurrekontuan jasotako gastuen eta ez jasotako gastuen finantzazioa .....	10
4.- Lege-xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan izango duen eragina .....	10
5.- Proposatutako xedapenaren aurrekontu-programa ekonomikoa .....	11
6.- Lege-aurreproiektuak gizartean izango duen eragin ekonomikoa. ....	11
I. ERANSKINA-Hauteskunde-gastuaren muga. Taula .....	12
II. ERANSKINA- Hauteskundeetarako dirulaguntza publikoen taula .....	13

# EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO LEGEA BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA

---

## **1.- AURREKARIAK ETA LEGE-XEDAPENAREN BEHARRA IKUSPEGI EKONOMIKOTIK AZTERTUTA**

Aurreproiektu honen xedea Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderen Legea aldatzea da (5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa). Azken urteotan, lege hori honako lege hauen bidez aldatua izan da: 15/1998 Legea, ekainaren 19koa; 6/2000 Legea, urriaren 4koa; 1/2003 Legea, martxoaren 28koa; eta 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.

Zehatzago adierazteko, aurreproiektuaren xede nagusia da alde batetik, espainiar estatuko hauteskunde legeria oinarritzeko sartutako aldaketak geure legean jaso eta geure legera egokitzea (batik bat, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoa –aurrerantzean HAOLO- aldatzen duten urtarrilaren 28ko 2/2011 eta 3/2011 Lege Organikoetan jasotakoak), eta bestetik, Espainiako Konstituzio Auzitegiaren doktrina eta hauteskunde-administrazioak finkatutako gomendioak jasotzea.

Aztertuko dugun aurreproiektuaren aurrekariak honekin batera doan argibide-memorian aztertu ditugu.

Espedientean eta argibide-memoria horretan jasota daude proposatutako arauketaren nondik norako nagusiak ezagutzea ahalbidetzen duten datuak, txostenak eta azterlanak.

## **2.- LEGE-XEDAPENA INDARREAN SARTZEAK AURREKONTUAN ERAGINGO DITUEN GASTUAK ETA DIRU-SARRERAK**

Aurreproiektu honen eragin ekonomikoa azaltzeko, eduki ekonomikoa duten artikulak aztertuko ditugu. Horretarako, Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetan aplikatzean izango duten eragina azalduko dugu.

## A) EDUKI EKONOMIKOA DUTEN ARTIKULUAK

1. Aurreproiektuko 29.j), 30.1 d), 66, 68 bis.3, 75.2, 79, 87.7, 132, 145.4, 147.2 eta 151.1 eta 2 artikuluek zenbait kopuru ekonomiko adierazten dituzte, hauteskunderen gai-alorreko zehapenen zenbatekoak zehazteko -29 j), 30.1 d), 66, 68 bis.3, 79, 87.7, eta 132 artikulua-, indar politikoek bildu beharreko diru-zenbatekoak finkatzeko -145.4. artikulua-, hautagaitzek hauteskunde-publizitatean egin dezaketen gastuaren muga finkatzeko -75.2 artikulua-, hauteskunde-gastuen muga erabakitzeko -147.2 artikulua-, edo hauteskunde-dirulaguntzen zenbatekoak finkatzeko (151.1 eta 2 artikulua).

Zenbateko horiek eurotara bihurtu eta eguneratu dira, 5/1990 Legeak pezetatan adierazten baitzituen diru-zenbatekoak (horren salbuespen dira 30.1, 75.2, 132, eta 145.4 artikuluan adierazitakoak, bat baitatz 2011n aldatutako HAOLO legearenekin). Hori guztia egin da aintzat hartuta Ekonomia eta Ogasun Sailak 2012ko abuztuaren 30ean eman zuen agindua (irailaren 4ko EHAA, 172. zk.), 5/1990 Legearen zenbatekoak eguneratzeari buruzkoa. EAEko 2012ko hauteskundeetarako eman zen agindu hori, eta bertan egiten da adierazitako eguneratzea, Legearen laugarren xedapen gehigarria betetzeko.

Bestalde, 30.1, 75.2, 132, eta 145.4 artikuluek araututako zenbatekoak HAOLO legeak 19.2 eta 129. artikulua oinarritzkoentzat araututakoak dira, urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak artikulua horiei emandako idazketan. Horrez gainera, aintzat hartzen dira HAOLO legean oinarritzko izaerarik ez duten 153.1 eta 2 artikuluetan arautzen diren zenbatekoak, 2011ko lege organikoak artikulua horiei eman dien idazketan.

Zenbateko horiek aldatu gabe mantentzearen arrazoia hau da: HAOLO legea 2011n aldatu zenetik hona, bi urte eta zortzi hilabete besterik ez direla pasa eta, tarte horretako KPIa %4,2koa dela, ezer gutxi zenbateko horiek eguneratu behar izateko.

2. 36.3 artikulua: Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen erabakiak (aurrerantzean JECA) ondorio horietarako egokituko den webgune batean argitaratuko dira. Aurreproiektuaren artikulua horrek honezkero errealitate bat dena islatu besterik ez du egiten, alegia 2012ko hauteskunderen geroztik Eusko Legebiltzarreko webgunean atal bat egokitu dela JECAren erabakiak argitaratzeko.

3. 38.3 artikulua: kendu egiten da barruti bakoitzeko Atalen, Mahaien eta Hauteskunde Lokalen zerrenda zabalkunde handiena duten bi egunkarietan argitaratzeko

betebeharra. Horren ordez, nahikoa izango da Hauteskunde Erroldaren Bulegoko webgunean argitaratzearekin, hala ezartzen baita HAOLO legearen 24.4 artikulua oinarrizkoan, 9/2007 Lege Organikoak emandako idazketan.

4. 68.3 artikulua: kendu egin da Jaurlaritzak hauteskunde-prozesuan egiten zuen kanpaina instituzionala, autonomia-erkidegoko hauteskundeetan parte hartzea sustatzeko, hala ezartzen baitu HAOLO legearen 50.1 artikulua oinarrizkoak 2/2011 Lege Organikoak emandako idazketan. Beraz, EAEko hurrengo hauteskundeetan ez da aurrekontu-sailik izango kanpaina hori egiteko eta zabaltzeko.

5. 88.1 artikulua: aurreikusten da Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez garatzea artikulua horretan xedatutakoa, bai hautesleek Eusko Jaurlaritzaren webgunetik telematikoki eskura ditzaketen boto-paperen eta bestelako hauteskunde-inprimakien formato elektronikoa arautuz bai webgune beretik eskura dezaketen hautagaitzen formato arautuz.

6. 104.3 artikulua: itsutasuna duten pertsonak Braille bidezko botoa emateko behar dituzten bitartekoen kudeaketa. 104. artikulua garatzeko erregelamendua eman behar du Eusko Jaurlaritzak.

7. 132.2 Bis artikulua: aldi baterako atzerrian dauden pertsona egoiliarrek posta bidezko botoa tramitzatzeko behar dituzten hauteskunde-inprimakiak eta -agiriak egitea eta banatzea.

8. 132 Ter artikulua: hauteskunde-administrazioari eta Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioari eman behar zaizkie hauteskundeko material eta boto-paperak, botoa emateko gutun-azalak eta dokumentazioa, aldi baterako atzerrian bizi diren pertsona egoiliarrek botoa eman dezaten. HAOLO legea 2011n aldatu ondoren, pertsona horiei aukera ematen zaie aldeztatik botoa emateko, bai kontsuletxeetan berariaz jarritako hauteskunde-kutxetan zuzenean botoa emanez, bai atzerriko herrialdeko barne-postaren bidez kontsuletxera bidaliz botoa.

9. 147.2 artikulua eta lehen xedapen iragankorra: euro konstanteetan eguneratzen dira EAEko hauteskundeetarako hautagaitzen hauteskunde-gastuaren muga finkatzeko zenbatekoak. Egungo krisiaren ondorioz eta HAOLO legeari 2011n egin zaion erreformaren ildoari jarraitzeko, gastu hori % 15 murrizten da 2012tik aurrera egingo diren hauteskunde autonomikoetarako.

10. 151.1 eta 2 artikulua, bigarren xedapen iragankorra eta xedapen gehigarri bakarra: euro konstantetan eguneratzen dira hautagaitzei boto bakoitzeko eta aulki bakoitzeko ematen zaizkien hauteskunde-dirulaguntzak, bai eta hauteskundeko publizitateari eta propagandaren bidalketei dagozkiena ere. Horrekin batera, kontuan izan behar da erabaki dela, 2013ko abenduaren 31rako, zenbateko horiek ez igotzea Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetarako. 2013ko urriaren 1era eguneratu dira, egun horretan amaitu baitzuen Segurtasun Sailak lege-aurreproiektua idazteko lana. Zenbatekoak izozteko erabaki hori hartu da herri-administrazioek, egungo krisi ekonomikoaren baitan, ezarri dituzten gastu-murrizketen harian, eta bat dator HAOLO legeak arautzen duenarekin, urtarrilaren 28ko 2/2011 lege organikoak hauteskunde legeari eman dion idazketan.
11. Bigarren xedapen gehigarria: baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari proba pilotuak egiteko hauteskunde autonomikoetan, informazioko eta komunikazioko teknologia berrien erabilera probatzeko hauteskunde-prozesuetan.
12. Xedapen indargabetzaile bakarra: Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Legea aldatzen duen ekainaren 15eko 5/1998 Legean bozketa elektronikoaren prozedura arautzeko aurreikusitako artikulua, xedapenak eta eranskina indargabetzeak hurrengo hauteskunde autonomikoetan horiek guztiak aplikatu ezin izatea dakar.
13. Lehen azken xedapena: desgaitasunen bat duten pertsonentzat jarri beharreko irisgarritasun-baldintza berriazkoak eta pertsona horiek hauteskunde autonomikoetan ez diskriminatzeke lege-aginduen erregelamenduzko garapena egiteko, bete egin behar dira abenduaren 2ko 51/2003 Legeak, desgaitasunak dituzten pertsonen aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoak, bosgarren azken xedapenean arautzen dituen baldintzak eta epeak. Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bat eman behar du lehen azken xedapen hori garatzeko, eta arau horrek irisgarritasun-baldintza espezifikoak finkatu behar ditu eduki ekonomikoko gai-alorretan. Hauek dira, laburtuta, gai-alorrak:
  - a) Irisgarriak egitea eraiki berriak diren hauteskundeetarako lokalak edo kolegioak.
  - b) Hauteskunde-kolegioetako karteletan seinaleak adieraztea, haiek jartzeko irisgarritasun-baldintzak betez.
  - c) Zeinuen hizkuntzako interpreteak izatea mahaiburu eta kide gormutuak dituzten mahaietan.

- d) Araututako irisgarritasun-mailara egokitzea Zuzendaritzako elecciones.net weborria eta Eusko Jaurlaritzaren kanpaina instituzionala (5/1990 Legearen 68.3. artikulua).
- e) Araututako irisgarritasun-mailara egokitzea Eusko Jaurlaritzaren telefono bidezko arreta-zerbitzuak.
- f) Motrizitate-desgaitasunak dituzten pertsona-eskatzaileei doako garraio-zerbitzua irisgarri egitea hauteskunde-egunean.

## **B) AURREPROIEKTUAREN ERAGIN EKONOMIKOAREN AZTERKETA**

Lege-aurreproiektuko xedapenek gastu-aurreikuspen hau egiten dute:

1. Horrela justifikatzen dira 29 j), 66, 68 bis.3, 79, 87.7 eta 147.2 artikuluetan jasotzen diren zenbateko ekonomikoak:

Ekonomia eta Ogasun Sailak 2012ko abuztuaren 30ean agindu bat eman zuen Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko Legean jasotako zenbatekoak eguneratzeko (5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa). Agindu horren 2. artikulua % 101,33 igo ditu zenbateko horiek.

Bestalde, lege-aurreproiektuko 151.1 eta 2 artikuluan aurreikusitako hauteskundeetako diru-laguntzak jada euro konstantetan eguneratuta ageri dira aurreproiektuan, 2012ko abuztuaren 30eko Aginduaren lehendabiziko artikulua betez.

Horrez gainera, aintzat hartu behar da 30.1., 75.2, 132, eta 145.4 artikuluetan arautzen diren zenbatekoak bat datozela HAOLO legearen 19,2, 55.3, 129 eta 153.1 eta 2 artikuluek finkatutako zenbatekoekin, urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak azken xedapen horiei eman dien idazketan, memoria honetako 2 A.1 atalean justifikatzen den moduan.

Huteskunde-administrazioak -aurreproiektuaren 29.j), 30.1 d), 66, 68 Bis.3, 87.7 eta 132 artikulua- nahiz Udalek -aurreproiektuaren 79. artikulua- ezarritako isun eta zehapenetatik erator daitekeen diru-sarrera publikoen gehikuntza hain da txikia ez duela ondorio nabarmenik herri-administrazioetako diru-sarreratan. Hain zuzen ere, 2009 eta 2012ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan ez da isunik edo zehapenik jarri indarrean den legearen itzalpean. 2005eko hauteskunde autonomikoetan, berriz, bi besterik ez, biak JECAk jarritakoak. Bata, Eusko

Jaurlaritzako aholkulari-kargudun bati, 1000 €ko zenbatekoan; eta bestea, alderdi poilitiko baten ordezkariari, 300 €ko zenbatekoan.

2. 36.3 artikulua ez du eragin ekonomikorik, 2012ko hauteskunde autonomikoez geroztik atal berezi bat baitago Eusko Jaurlaritzako webgunean, besteak beste, JECAREN erabakiak jasotzeko.
  
3. 38.3 artikulua: Eusko Jaurlaritzak ez daki zenbatekoa den Atalen, Mahaien eta Hauteskunde Lokalen berri Interneten zabaltzeagatik (Hauteskunde Erroldaren Bulegoaren webgunearen bidez) eratorritako gastuaren aurrezkia; izan ere, bulego hori Estatistikako Institutu Nazionalaren egituraren barruan dago, Ogasun Ministerioaren menpe, eta Hauteskunde Batzorde Zentralak gainbegiratzen ditu bere eginkizunak (HAOLO legearen 29. artikulua oinarritzat).
  
4. 68.3 artikulua: Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan partehartzea sustatzeko kanpaina instituzionala 2012ko hauteskunde autonomikoetan kendu zen jada. Horrenbestez, hauteskunde-prozesuaren alor jakin batzuei buruzko informazio-kanpaina baino ez zen egin. Artikulu horren eragin ekonomikoa esanguratsua da, Eusko Jaurlaritzak burutzen duen kanpaina instituzionalaren kostu osoan murrizketa garrantzitsua ekarri baitu. Horrela erakusten dute jarraian adierazten diren datuek: 2009ko hauteskunde autonomikoetan, hauteskundeetan partehartzea sustatzeko eta hauteskunderi buruzko informazio kanpainaren kostu osoa 190.820 eurokoa izan zen; aldiz, 2012ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, informazio-kanpaina soilik burututa, kostua 98.054,80 eurokoa izan zen. Beraz, eragin ekonomikoari dagokionez, %94,5eko murrizketa bat gertatu da.
  
5. Aurreproiektuaren 88.1 artikulua eragin ekonomikoa erregelamendu bidez izango duen arau-garapenera baldintzatua dago. Dakarren berrikuntza da hautesleek Eusko Jaurlaritzako webgunetik deskargatu ahal izango dutela aukeratutako boto-papera. Horrek, Jaurlaritzak paper-euskarrian egiten dituen boto-paperekin kopurua murriztea ekarriko du, hein txiki batean bada ere. Murrizketa hori, gutxi gorabehera, Jaurlaritzak 2012ko hauteskundeetarako guztira egin zituen boto-paperekin %1ekoa izan daiteke. Hauteskunde haietan, Jaurlaritzak 21.900.000 boto-paperekin egin zituen. Berrikuntza horri esker, gutxi gorabehera 218.000 boto-paperekin gutxiago prestatu beharko liriteke, eta 10.000 euro inguru aurreztuko liriteke.



6. Itsutasuna duten pertsonen botoari buruz 104.3. artikulua arautzen duen xedapenaren eragin ekonomikoa aztertzeko, Eusko Jaurlaritzak egingo duen arau-garapenari erreparatu behar zaio. Hala ere, informazio gisa, eragin ekonomikoa neurtzeko baliagarria izan daiteke jakitea 2012an egin ziren hauteskunde autonomikoetan Eusko Jaurlaritzak itsutasuna duten pertsonentzako botoa abiarazi zuela. Horrela, bete egin zuen abenduaren 7ko 1612/2007 Errege Dekretuko azken xedapenetako lehenengoa. Errege-dekretu horrek botoa irisgarri egiteko prozedura bat arautzen du, itsutasuna duten pertsonen boto-eskubidea baliatzea errazten diona. Botoa emateko modu hori abiarazteko, Braille sistemaren bidez bozkatzeko 50 kit prestatu behar izan ziren. Botoa emateko modu hori abiarazitakoan, EAEko 29 boto-ematek eskatu zuten hori erabiltzea, eta guztirako kostu ekonomikoa 2.130,80 eurokoa izan zen.
7. 132.2 Bis artikulua: aldi baterako atzerrian bizi diren pertsonen posta bidezko botoa. Lege-aurreproiektuak HAOLO legearen 74. artikulua oinarritzora igortzen du kasu hau, eta nabarmentzekoa da, horri buruzko aurrekariak adierazte aldera, Eusko Jaurlaritzak 2012ko hauteskunde autonomikoetan posta bidezko boto hori abiarazi zuela; hala, inprimakiak, boto-paperak eta kartazalak sortu eta eman zitzaizkien EAEn boto-modu horren eskaera egin zuten 588 boto-emateri. Eragin ekonomikoa aztertzeko, kontuan izan behar da 2012ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan erabilitako materialaren gastu osoa gehi hautesleei itzulitako posta-frankeoaren kostua 9.414,68 eurokoa izan zela.
8. 132 Ter artikulua: atzerrian bizi diren pertsona egoiliar absenteen boto berria arautzen du, eta boto hori tramitatzeko, HAOLO legearen 75. artikulua oinarritzora igortzen du artikulua, urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak hari eman dion idazketan. Araubide horrek arautzen duenaren harian, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan Eusko Jaurlaritzari dagokio boto hori baliatzeko beharrezkoak diren boto-paperak, kartazalak eta hauteskunde-dokumentazioa egitea eta Hauteskunde Erroldako Bulegoari eta Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioari banatzea. Xedapen horren eragin ekonomikoa zehazteko, beharrezkoa da jakitea Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskundeetan 45.385 pertsonak osatu zutela atzerrian bizi diren pertsona egoiliar absenteen errolda, eta pertsona horiek mundu osoko 194 herrialdeetan banatuta ageri zirela. Horrek eskatzen du boto-mota horretarako boto-paper, kartazal eta inprimaki zehatzak prestatu beharra, gehi hautesleei posta-frankeoa itzuli beharra. Horren kostua 44.009,41 eurokoa izan zen.

9. 147.2 artikulua: hautagaitzek egin dezaketen hauteskunde-gastuaren muga kalkulatzeko formula arautzen du, eta azaldu dugu jada memoria honetako 2.A.9 puntuan. Hala ere, adierazi beharrekoa da, eragin ekonomikoa aztertzeko, lehen xedapen iragankorrak % 15eko murrizpena egin beharra arautzen duela 2012tik aurrerako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako hauteskunde-gastuan; beraz, gastua murriztu egingo da Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailburuak 2012ko irailaren 17an emandako aginduan (irailaren 25eko EHAA, 187. zk.) Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskundeetarako finkatzen zen gastuarekiko, gastu-muga hori finkatzen baitzuen, hain justu, agindu horrek. Hori guztia adierazi da I. eranskinean.
10. 151.1 eta 2 artikulua, hauteskundeetako dirulaguntzen eguneratzeri buruzkoak:  
 Memoria honetako 2.A.10 puntuan azaldu dira haien oinarriak. Horrez gainera, kontuan izan behar da bigarren xedapen iragankorrak arautzen duena, hau da, zenbateko horiek 2013ko abenduaren 31ko zenbatekoan izoztuko direla 2012tik aurrerako hauteskunde autonomikoetan aplikatzeko. Aintzat hartzekoa da, horren harian, dirulaguntzen zenbatekoak 2013ko urriaren 1eko datan eguneratu direla, hau da, Segurtasun Sailak lege-aurreproiektu hau idatzi duen datan (lege-aurreproiektuko lehen xedapen gehigarria). Horrenbestez, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko Laugarren Xedapen Gehigarriak arautzen du eguneratu egingo direla zenbateko horiek hurrengo hauteskunde autonomikoak deitu ondorenean, baina nabarmen mugatzen dute xedapen hori, bai lege-aurreproiektuko bigarren xedapen iragankorrak (dirulaguntzak 2013-12-31ra izozten ditu diru-laguntzak), bai lege-aurreproiektuaren lehen xedapen gehigarriak (2013-01-10era eguneratzen ditu dirulaguntzak). Eguneratze horiek 2013-01-10 eta 2013-12-31 bitarteko data hartuko ditu, horrela interpretatu baitu Hauteskunde Batzorde Zentralak HAOLO legearen zortzigarren xedapen gehigarriari buruz 2011-02-17an hartu zuen erabakiak, Esquerra Republicana de Catalunya alderdiak egindako kontsulta bati erantzunez (erabaki horren 3. puntua da gai-alor honetan aplikagarria den alderdia). Agiri honen II. eranskinean azaltzen den taulan adierazten da, lege-aurreproiektuak finkatzen dituen zenbatekoei erreparatuta, hautagaitzek jasotzekoak izango dituzten diru-laguntzen eraginak. Taula horretan adierazten da 2012an Eusko Legebiltzarrerako egin ziren hauteskundeekiko zenbatekoen konparaketa.
11. Bigarren xedapen gehigarriak planteatzen duen eragin ekonomikoak lotura zuzena du botoak emateko eta haien kontaketa egiteko erabiliko den sistema automatizatua erabakitzeko egingo den proba pilotuarekin eta proba horri eman

nahi zaion garrantziarekin. Nolanahi ere, 60.000 eta 150.000 € bitarteko kopuru bat finka daiteke botoak emateko eta haien kontaketa egiteko froga edo erakustaldi horiek finantzatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2009ko azaroaren 17an hartutako Erabakian ezartzen denaren arabera (legegintza-egutegiari buruzkoa).

12. Zaila da kalkulatzeko zein izango den Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeek Legea aldatzen duen ekainaren 15eko 15/1998 Legeko bozketa elektronikoaren prozedura kendu izanaren eragin ekonomikoa, bozka emateko prozedura hori ez baita inoiz praktikan jarri hauteskunde autonomikoetan. Nolanahi ere, argibide gisa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeek Legea aldatzeko 1997ko irailaren 8ko lege-aurreproiektuaren memoria ekonomikoa jasotzen zena ekar dezakegu hona. Memoria hartan, bozketa elektronikoaren prozedura indarrean jartzearen kostua 14.424.291 euroan ezarri zen.
13. Lehen azken xedapenak arautzen duen eragin ekonomikoa baldintzatuta dago Eusko Jaurlaritzak, xedapen gehigarri hori garatzean, hauteskunde autonomikoetan irisgarritasun-baldintza berariazkoak arautzeko emango duen erregelamenduak egingo duen araupenera. Hala ere, esan daiteke, gaur egun, memoria honetako eduki ekonomikoko artikuluen 12. puntuan adierazten diren baldintza berariazkoetakoren bat indarrean jarri duela Eusko Jaurlaritzak 2005eko hauteskunde autonomikoetan, 2009. urtekoetan eta 2012koetan. Zehazki, prentsan hauteskunde-kolegioetara doan garraiatzeko zerbitzua iragartzeak – zerbitzu horri esker motrizitate-desgaitasunak zituzten 87 lagun garraiatu ziren hauteskunde-kolegioetara bozkatzera- 27.725 euroko kostua izan zuen.

### **3.- AURREKONTUAN JASOTAKO GASTUEN ETA EZ JASOTAKO GASTUEN FINANTZAZIOA**

Aurreproiektu honetako eduki ekonomikoko artikuluek aurrekontuan eragingo dute Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetan aplikatzen direnean, eta eragin hori baldintzatuta egongo da aurreproiektuko xedapenak garatuz baldintza berariazkoak arautzeko emango diren erregelamenduak egingo duten araupenera.

#### **4.- LEGE-XEDAPENAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN NAGUSIAREN BEREZKO GAIETAN IZANGO DUEN ERAGINA**

Xedapen honek ez du inolako eraginik izango Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiak berezkoak dituen gaietan.

## **5.- PROPOSATUTAKO XEDAPENAREN AURREKONTU-PROGRAMA EKONOMIKOA**

Lege-xedapen hau Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren 46111 HAUTESKUNDEAK izeneko aurrekontu-programa ekonomikoan sartzen da, hain zuzen ere SEGURTASUN SAILari dagokion 2. sekzioan (urtea 20...).

**HELBURUA:** *Hauteskunde Autonomikoen gai-arloan lege-aldaketa prestatzea*

**EKINTZA:** *Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Legea aldatzeko Lege-aurreproiektua prestatzea*

**ADIERAZLEA:** *Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Legea aldatzeko Lege-aurreproiektua*

## **6.- LEGE-AURREPROIEKTUAK GIZARTEAN IZANGO DUEN ERAGIN EKONOMIKOA**

Argibide-memorian eta genero-eraginari buruzko ebaluazio-txostenean adierazitakoarekin bat etorriz, ondoriozta dezakegu aurreikusitako legezko neurrietako batzuk eragin positiboa izango dutela; izan ere, behar adina baliabide ezartzen dute Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan gizonek eta emakumeek berdintasun baldintzetan egikari ditzaten, inolako bereizkeriarik gabe, bai sufragio pasiborako eskubidea bai eskuartze politikorako eskubidea.

## I. ERANSKINA

### HAUTESKUNDE-GASTUAREN MUGAK KONPARATZEKO TAULA

HAUTESKUNDE PROZESUAK	Lege-araua	Biztanleria Zuzenbidekoa <sup>1</sup>	€		Oinarrizko gastu-muga <sup>2</sup> (biztanleria x €)	Gehikuntza gastu finkoarena <sup>3</sup>	Murrizketa %15	Gehienezko muga hautagaitzako <sup>4</sup>	Hautesleko gastua, batez beste <sup>5</sup>	
									Hautesleak <sup>6</sup>	€
Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak 2012	147.2 art. (5/1990 Legea) eta Herrizaingoko Agindua 2012.09.17	(2011-01-01)					EZ			
Araba		319.227	x 0.42	=	134.075,34 €	205.703,06 €		340.669,95 €	250.982	6,79
Bizkaia		1.155.772	x 0.42	=	485.424, 24 €	205.703,06 €		694.355,32 €	948.409	2,93
Gipuzkoa		709.657	x 0.42	=	298.034,94 €	205.703,06 €		505.719,88 €	575.935	3,51

<sup>1</sup> Zuzenbideko biztanleria 2011-01-01ean, Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskundeetan. Zuzenbideko biztanleria 2012-01-01ean, Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetarako.

<sup>2</sup> Hauteskunde autonomikoetan proklamaturako hautagaitza bakoitzeko. Gastu finkoaren igoera lurralde historikoaren arabera, hautagaitzako edo hautagaitza duen alderdi politiko bakoitzeko.

<sup>3</sup> Hauteskunde autonomikoetan proklamaturako hautagaitza bakoitzeko edo Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetan legebiltzarkideak eskuratzen dituen alderdi politiko bakoitzeko. Hautagaitza edo alderdi politiko bakoitzak hauteskundeetan egin dezakeen gastuaren gehienezko muga lurralde historikoetan eta EAEn.

<sup>4</sup> Hauteskunde autonomikoetan proklamaturako hautagaitza bakoitzeko edo Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetan legebiltzarkideak eskuratzen dituen alderdi politiko bakoitzeko.

<sup>5</sup> Hautesle-errola 2012-09-24an Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskundeetan. Errola 2013-09-01ean, Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetarako, Hauteskunde Erroldako Bulegoaren egungo datuen arabera.

<sup>6</sup> Hautesleko batez besteko gastua Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskundeetan aulkia lortu zuten hautagaitzetan (hautagaitzako gehienezko muga biderkatua aulkidun hautagaitzen Kopuruarengatik: 5 Araban, 4 Bizkaian, 6 Gipuzkoan, 15 EAEn zati hautesleak). Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeei buruzko kalkuluak egitean, Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskundeetan aulkiak eskuratu zituzten hautagaitzak hartu dira kontuan.

E.A.E.		2.184.606	x 0.42	=	917.534,52 €	617.109,18 €		1.540.355,32 €	1.775.336	11,28
Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak	147.2 art. eta Lehen Xedapen Iragankorra	(2012-01-01)					BAI (- %15)			
Araba		322.557	x 0.43	=	138.699,51 €	215.988,21 €		336.953,33 €	251.596	6,69
Bizkaia		1.158.439	x 0.43	=	498.128,77 €	215.988,21 €		678.411,13 €	947.781	2,86
Gipuzkoa		712.097	x 0.43	=	306.201,71 €	215.988,21 €		496.080,42 €	576.657	3,44
E.A.E.		2.193.093	x 0.43	=	943.029,99 €	647.964, 63 €		1.511.444,88 €	1.776.034	11,06

## II. ERANSKINA

### HAUTESKUNDEETAKO DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK KONPARATZEKO TAULA

DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN KONTZEPTUAK	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	
	Eusko Legebiltzarra 2012 (ELHLren 151. art. eta Ekonomia eta Ogasunaren 2012.08.30eko Agindua)	Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak <sup>1</sup> (151.1 eta 2 artikulua, 2. Xedapen Iragankorra eta Lehen Azken Xedapena)
€ aulkiko.	26.761,89 € x 75 aulki = 2.007.141,75 €	27.297,08 x 75 aulki = 2.047.281 €
€ aulkidun botoko.	0,90 € x 1.010.736 boto = 909.662,4 €	0,918 x 1.010.736 boto = 927.855,65 €
€ LHko aulkidun alderdientzat.	44.603,13 € x 13 aulkidun alderdi = 579.840,69 €	45.495,19 x 13 aukidun alderdi = 591.437,47 €
<b>GUZTIRAKO PARTZIALA</b>	<b>3.496.644,84 €</b>	<b>3.566.574,12 €</b>
Hautesleko dirulaguntza	1,96 €	2,00 €
Mailing-a: 0,23 € edo 0,2346 € aulkidun hautagaitzak dituzten LHko hautesleko.	1.616.440 € <sup>2</sup>	1.648.769,26 € <sup>3</sup>

<sup>1</sup> Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskunderi dagokienez, 2013-10-01aren eta 2013-12-31ren arteko 3 hilabeteko tarteari soilik eragingo dio Ekonomia eta Ogasun Sailaren agindu baten bidez lege-aurreproiektuko diru-laguntzetan egindako eguneratzeak. Taulan honetan, %2ko gehikuntza kalkulatu dugu.

<sup>2</sup> 0,23 € x Arabako bidalketa-kopurua x 5 aulkidun hautagaitza + 0,23 € x Bizkaiko bidalketa-kopurua x 4 aulkidun hautagaitza + 0,23 € x Gipuzkoako bidalketa-kopurua x 6 aulkidun hautagaitza.

<sup>3</sup> 0,2346 € x Arabako bidalketa-kopurua x 5 aulkidun hautagaitza + 0,2346 € x Bizkaiko bidalketa-kopurua x 4 aulkidun hautagaitza + 0,2346 € x Gipuzkoako bidalketa-kopurua x 6 aulkidun hautagaitza.



<b>GUZTIRAKO PARTZIALA</b>	<b>1.616.440 €</b>	<b>1.648.769, 26 €</b>
<b>AMAIERAKO GUZTIRAKOA</b>	<b>5.113.084,84 €</b>	<b>5.215.343,38 €</b>
Hautesleko dirulaguntza.	2, 88 €	2,94 €